

ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Ikuskaritza txostena,
2005eko abenduaren 31ra arteko Urteko kontuak
eta 2005eko Kudeaketa txostena.

*Espainieraz idatzitako Urteko Kontuen Ikuskaritza-Txostenaren jatorrizko bertsioaren itzulpen librea.
Desadostasunik balego, espainierazko bertsioa nagusitzen da.*

URTEKO KONTUEN IKUSKARITZA-TXOSTENA

Ikuskatu ditugu Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundeko urteko kontuak. Erakunde horretako gobernu-batzordearen ardura da kontu horiek osatzea, eta, bertan, 2005eko abenduaren 31ra arteko egoera-balantzea, galera-irabazien kontua eta egun horretara arteko urtealdiko txostena daude bildurik. Gure ardura urteko kontu horiei buruzko iritzia azaltzea da, kontuak orokorrean harturik, eta, horretarako, ikuskaritza-lanean oro har onarturiko arauak erabili ditugu, hau da, aukerako proba batzuk eginez, urteko kontuak frogatzen dituen nabaritasuna aztertzea, eta beste alde batetik, kontu horien aurkezpena, erabilitako ikuskaritza-printzipioak eta eginiko estimazioak balioestea izan da gure beharra.

Erantsirik doan oroitza-txosteneko 3.a) puntuan adierazirik dagoenez, erakundea 2004ko uztailaren 27an osatu zen, baina erakundeak berak dio 2005ko urtarrilaren 1ean hasi zela jardunean, benetan egun horretatik aurrera hasi baitziren sozietate-operazioak. Horregatik, eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzak berak baimena eman ondoren, 2004ko abenduaren 31 baino lehenago eginiko transakzio bakanak 2005ean daude jasota kontularitzarako. Kontularitzarako, hortaz, 2005. urtea izango da erakundearen lehen jardun-urtealdia.

Gure iritziz, arlo esanguratsu guztietan, erantsirik doazen 2005eko urtealdiko kontuetan zuzen adierazita daude bai Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundearen ondarearen eta finantza-egoeraren 2005eko abenduaren 31ko irudia, bai eta egun horretara arteko urtealdian eginiko operazioen emaitzen eta lorturiko eta aplikaturiko baliabideen irudia ere, eta datu horiek denak interpretatzeko eta ondo ulertzeko behar bezain beste informazio ere badakarte, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetan aplikatu beharreko kontularitzako printzipio eta arauen haritik (txosten erantsiaren 4. puntua).

Txostenarekin batera aurkezten den 2005eko Kudeaketa Txostenak, enpresaren egoera, bere negozioen bilakaera eta beste zenbait arlori buruz gobernu batzordearen ustez egokiak diren azalpenak barneratzen ditu, eta ez da urteko kontuetako bat. Kudeaketa txosten horretan jasota dagoen kontularitzako informazioa eta 2005. urteko kontuetan jasota dagoen informazioa bat datozela egiaztatu dugu. Ikuskatzaileak garen aldetik, gure lana kudeaketa-txostena neurri horretan egiaztatzea da, besterik ez, eta erakundeko kontularitzako erregistroetatik lortutakoaz bestelako informaziorik ez dugu guk aztertzen”.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L.
(Jatorrizkoa espainieraz, M^a Victoria Mendia Lasak sinatua)

2006ko martxoaren 15a
Bazkide kontu-ikuskatzailea

**ITZARRI
BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA**

**EGOERA-BALANTZEA 2005EKO ABENDUAREN 31N
(Euroak, milakotan)**

<u>AKTIBOA</u>	<u>2005</u>	<u>PASIBOA</u>	<u>2005</u>
IBILGETUA	751	ONDARE SOZIALA	614
Eraketa-gastuak	8	Mutua-fondoa	30
Ibilgetu ez-materialak	598	Ekitaldiko soberakina	584
Erabiltzeko eskubideak	476		
Aplikazio informatikoak	196	HORNIDURA TEKNIKOAK	29.482
Metatutako amortizazioa	(74)	Prestazioetarako hornidura teknikoak	29.482
Ibilgetu materialak	145		
Garraioko elementuak	15	HAINBAT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO SARRERAK	813
Altzariak eta instalazioak	94	Jasotako diru-laguntzak	813
Ekipo informatikoak eta datuak prozesatzeko ekipoak	64		
Metatutako amortizazioa (kentzekoa)	(28)	ZORRAK	569
		Zerga-zorrak, gizarte-zorrak eta bestelakoak	15
FINANTZA-INBERTSIOAK	17.026	Hainbat hartzekodun	87
Akzioak eta beste partaidetza batzuk	7.219	Balio-erosketako hartzekodunak	467
Errenta finkoko tituluak	9.912		
Hornidurak (kentzekoa)	(105)		
KREDITUAK	477		
Balio-salmentako zordunak	459		
Zerga-kredituak, gizarte-kredituak eta bestelakoak	18		
ALDIZKAPENAGATIKO DOIKUNTZAK	129		
ESKUDIRUA	13.095		
Bankuak eta kreditu-instituzioak	1.895		
Finantza-aktibo likidoak	11.200		
	31.478		31.478

**ITZARRI
BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEA**

**GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA, 2005EKO ABEDNUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIARI DAGOKIONA
(Euroak, milakotan)**

<u>GASTUAK</u>	<u>2005</u>	<u>SARRERAK</u>	<u>2005</u>
Ekitaldian sortutako prestazioak		Ekitaldiko kuotak	
Prestazioak eta erreskateak	109	Bazkideen kuotak	29.581
	109	Bestelako BGAEek egindako esku-aldatzeak	10
			29.591
Hornidura teknikoak ekitaldiaren bukaeran		Inbertsioetako sarrerak	
Prestazioetarako hornidura teknikoak	29.482	Finantza-inbertsioetako sarrerak	507
		Finantza-eragiketetan lortutako mozkinak	443
			950
Administrazio-gastuak		<u>Aparteko emaitza positiboak</u>	
Soldatak eta alokairuak	173	Ekitaldiko emaitzara lekualdatutako diru-laguntzak	513
Gizarte-zamak	43		513
Amortizazioetarako dauden ekitaldiko zuzkidurak	103		
Administrazioko beste gastu batzuk	250		
	569		
Inbertsioetako gastuak			
Hainbat finantza-gastu	7		
Horniduretarako dagoen ekitaldiko zuzkidura	105		
Finantza-eragiketetan izandako galerak	198		
	310		
Ekitaldiko superabita	584		
		HARTZEKOA, GUZTIRA	
ZORRA, GUZTIRA	31.054		31.054

ITZARRI

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2005EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKO URTEKO KONTUEN MEMORIA (Euroak, milakotan)

1. Izaera eta xede soziala

Itzarri, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea (hemendik aurrera, Erakundea) 2004ko uztailaren 4an eratu zen, halaxe eskatu baitzuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak. 2004ko uztailaren 30ean, Eusko Jaurilaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak erakundearen eraketa, estatutuak, prestazioen erregelamendua eta txosten ekonomikoa onetsi zituen Erakundea izena emanda dago Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistro Ofizialean, 260-A izenarekin egon ere.

Erakundearen helbide soziala hemen dago: San Antonio kalea 2, Vitoria-Gasteiz (5. oharra).

Erakundeak, eratu zen une beretik, nahitaez bete behar ditu Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen buruzko urriaren 27ko 25/1983 Legeak eta otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuaren bidez garatutako Erregelamenduak ezarri dituzten preskripzioak.

Estatutuen arabera, Erakundearen helburu soziala da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren zerbitzura dauden langileek erretiroa, ezintasun iraunkorra, heriotza edo iraupen luzeko langabezia dela-eta egiaztatu dituzten prestazio publikoak osatzea. Jarduteko eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Instituzionala osatzen duten instituzioak bazkide babesleak dira. Horretarako, lehenbizi, atxikitzeko akordioa sinatu behar izan dute eta, gero, Erakundearen Gobernu Batzarrak akordio hori onetsi behar izan du. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Aholku-Emailako instituzioek bazkide babesle bezala sartzeko eskabidea egin ahal izango dute.

Edozein pertsona fisiko izan daiteke bazkide oso, betiere, erakundearen bi urte egin baditu eta bazkide babesle baten zerbitzura lan egiten badu karrerako edo bitarteko funtzionario, estatutupeko edo bitarteko langile, lan-kontratuko nahiz behin-behineko langile edo goi-kargudun gisa.

Oro har, zerbitzuak eten edo kentzen badira eta, horren ondorioz, bazkideak ordainsariak jasotzen ez baditu, bazkide babesleek eta bazkide osoak ez dute ekarpenik egingo. Azken hau, gainera, etendura egoeran dagoen bazkide izatera igaroko da.

Onuradunak izango dira, Erakundeko bazkide oso izan zein ez, estatutu hauetan ezartzen den prestazioen bat jasotzeko eskubidea duten pertsona guztiak. Onuradun izaera ez da aitortuko, harik eta prestazioen erregelamenduan jasotzen diren prestazioak ordaintzea dakarren egitatea gertatu arte eta Erakundeko Gobernu Batzarrak hori aitortu arte.

ITZARRI

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Estatutuei jarraiki, Erakundea ekarpen mugatuko eta prestazio mugagabeko enplegu-motan sartuta dago; eta, beraz, ez du bere gain hartzen prestazioei lotutako arriskuen estaldura.

Bazkide babesleek Erakundeari egindako ekarpenak bazkide osoei egotziko zaizkie proportzioan, beren ordainsari finkoen eta aldizkakoan arabera; eta bazkide osoek borondatezko ekarpenak egin ahal izango dituzte.

Erakundeak hartu duen sistema finantzarioa eta aktuariala banakako finantza-kapitalizazioko sistema bat da; hartara, bazkide bakoitzak egindako ekarpenak eta doan egindako ondare-gehikuntzak eta horiei dagozkien inbertsioen bidez lortutako errentak izango dira kapitalizazio-prozesuaren ondoriozko gertakizuna jazotzen den unean kuantifikatuko diren prestazioak, betiere, egotz dakizkiekeen gastuak kendu ondoren.

2. Prestazioen estaldura

Erakundeak zenbait gertakizunen estaldura ematen du; hona hemen zein diren gertakizunak:

- i) Erretiroa edo bazkide osoaren egoeraren parekoa. Egoera horretara iristea ezinezkoa bada, 60 urte bete ondoren prestazioa jaso ahal izateko, bazkide osoak Gizarte Segurantzari edo Estatuko klase pasiboetan alta emanda egoteko arrazoia den jarduerari utzi beharko dio.
- ii) Bazkide osoaren baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua eta ezintasun iraunkor osoa.
- iii) Bazkide osoaren heriotzak, baldin eta alargun edo zurrutasun-prestazioa jasotzeko eskubidea edota bestelako eskubideak eman ahal badizkie beste jaraunse batzuei.
- iv) Bazkide osoa luzaroan egotea langabezian.

Prestazioen bidez, eskubide ekonomiko jakin bat aitortzen zaie Erakundeko onuradunei, Erakundeak estaltzen duen gertakizunen bat jazo delako. Prestazioen eskubide ekonomikoak eta bazkideak kapitalizatutako aurrezkiak kopuru berekoak izango dira.

Onuradunek, gertakizuna jazotzen den unetik aurrera, prestazioak jasoko dituzte, ondoko era batera edo bestera jaso ere:

- Kapital gisa, ordainketa bakarra eginez; ordainketa hori dagokion datan bazkideak bateratu dituen eskubideen zenbatekoaren parekoa izango da.
- Errenta gisa; errenta hori aldizkako nahiz biziartekoa izan daiteke. Onuradunak horrela nahi izanez gero, errenta gisa jasotako prestazioak finantza-errentak ere izan daitezke, inolako aktuario-errentarik edo bermerik gabe. Azken kasu horretan, Erakundeak aktuario-errenten kobrantza bermatu beharko du, primaren kostua bazkideari egotziz edo aseguru-konpainia batekin aktuario-errenta ordainduko dela bermatzen duen poliza bat sinatuz.

ITZARRI

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

- Era mistoan, hau da, kapital gisako kobrantza bakarrarekin errenta-modalitatearen bat bateratuz.

Eskubide ekonomikoak langilea bazkide oso izan daitekeen beste enplegu-erakunde batera eramán ahal izateko, bazkide babesleentzako zerbitzuek behin betiko burututa egon beharko dute eta, urte biko epean, bazkide babesleek ez dute ekarpenik egin behar. Zenbait kasutan ez da beharrezkoa izango bi urteko epe hori igarotzea; hona kasuak:

- Lan-harreman finkoa amaitzean.
- Beste administrazio publiko batera lekualdatzean.
- Bazkide babesleak baja hartzean.

3. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

a) Jardueraren hasiera-data

Lehen oharrean jasota dagoenez, Erakundea 2004ko uztailaren 24an eratu bazen ere, Erakundeak 2005eko urtarrilaren lehenbiziko eguna hartu du bere jardueraren hasiera-data gisa, berez, egun horrexetan hasi baita jardunean. 2004ko abenduaren 31 baino lehen sortutako kontabilitate-oharrak 2005eko ekitaldian jaso dira kontabilitatean. Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak tratamendu hori berariaz baimendu du 2005eko ekainaren 3an.

b) Irudi fidela.

Urteko kontuak prestatzeko, Erakundearen kontabilitate-erregistroak hartu dira oinarritzat, eta indarren dagoen legeriaren arabera aurkeztu dira, zehazki, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen kontabilitatea egokitzeko prestatu dituen arauen arabera. Horrenbestez, Erakundearen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela erakutsi nahi izan da.

Merkataritzako Kodeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2005eko abenduaren 31n, Erakundea ez zegoen behartuta urteroko kontu finkatuak formulatzera.

Bazkideen Batzar Nagusiak ez ditu oraindik onetsi 2005eko ekitaldiko urteko kontuak, baina Erakundearen Gobernu Batzarrak kontuak aldaketarik gabe onetsiko direla espero du.

Urteko kontuak osatzen dituzten agirietan agertzen diren kopuruetan, euroak milakotan adierazita daude.

ITZARRI

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

4. Aplikatu diren kontabilitateko printzipioak eta balorazioko arauak

Urteko kontuak prestatzeko, Kontabilitateko Plan Orokorrean jasota dauden balorazio- eta sailkatze-arauak eta kontabilitate-printzipioak hartu dira aintzat, betiere, plan hori Euskal Autonomia Erkidegoko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei egokitu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak 1988ko abenduaren 12an egindako Zirkularrekin eta erakunde horrek prestatutako bestelako zirkularretan jarritakoarekin bat etorrita. Hona hemen printzipio nagusiak:

a) Zuhurtasun-printzipioa

Ekitaldiaren amaieran gauzatu gabe dauden emaitza positiboak ez dira zenbatuko. Galerei dagokienez, haien berri izan eta berehala erregistratuko dira, izan litezkeenak ere barne hartuta, ohar honetan zehaztutako balorazio-arauei jarraiki.

b) Sortzapenaren printzipioa

Sarrerak eta gastuak kontabilitatean jasoko dira, sarrerak jasotzeko eta gastuak ordaintzeko eskubidea sortzen den unetik aurrera, horiek kobratzeko edo ordaintzeko data gorabehera.

c) Eraketa-gastuak

Eraketa- eta hastapen-gastuak, eta kapitala zabaltzekoak kostuaren arabera kapitalizatuko dira, eta linealki amortizatuko dira 5 urteko denboraldian. Amortizatu gabe dagoen zatia kapitalizatzeko aukera eman zuten inguruabarrak aldatzen direnean, ekitaldiko emaitzek baldintza horiek aldaraziko dituzte.

d) Ibilgetu ez-materiala

Aplikazio informatikoak erosi ziren unean zuten kostuan baloratuta daude, egindako amortizazioak kenduta Amortizazioa kalkulatzeko, metodo lineala erabiliko da eta 3 urteko bizitza baliagarria hartuko da aintzat.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta Instituzionalak doan laga ditu Erakundearen egoitza soziala diren lokalak (5. oharra). Erakundeak erabiltzearen aldeko eskubide horiek atxikitako ondasunen katastro-balioaren arabera balioetsi dira; eta ibilgetu ez-material gisa eta, aldi berean, "Hainbat ekitalditan banatu beharreko sarrerak" izeneko epigrafean jasotako diru-laguntza gisa erregistratu dira. Lagapenaren denboraldia mugagabea denez, Erakundeak 50 urteko epea hartu du aintzat linealki amortizatze aldera.

e) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialean sartu diren ondasunei dagokienez, erosi zirenean zuten prezioan baloratu dira; prezio horrek barne hartzen ditu zeharkako zergak, Ogasun Publikotik zuzenean ezin berreskuratu daitezkeen horiek.

ITZARRI

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Amortizazioa sistematikoki kalkulatu da metodo lineala baliatuz, aktiboei zenbatetsi zaien bizitza baliagarriaren arabera, eta aktiboen funtzionamendua, erabilera eta gozamina dela-eta galdu den balioa aintzat hartuta.

Hona hemen ibilgetu materiala osatzen duten elementuek galdu duten balioa kalkulatzeko kontuan izan diren bizitza baliagarriak:

	<u>Bizitza baliagarri ko urteak</u>
Garraioko elementuak	5
Altzariak eta instalazioak	10
Ekipo informatikoak eta datuak prozesatzeko ekipoa	3

f) Finantza-inbertsioak

Akzioak eta kotizatutako beste partaidetza batzuk erosi zirenean zuten kostuan baloratuta daude, erosketari berari dagozkion gastuak barne hartuta; eta horixe izango da finantza-inbertsioen balio-galerarako hornidura, merkatuko balioa erosteko balioa baino baxuagoa denean.

Kotizatutako eta kotizatu gabeko errenta finkoko tituluetan egindako inbertsioak erosteko unean zuten prezioan edo, hori baxuagoa bada, diru-itzultzeko balioan balioetsi dira. Erosteko kostuaren eta diru-itzultzeko balioaren arteko soberakinari dagokion aldea urtero amortizatuko da, balioaren hondar-bizitzaren arabera eta barne-errentagarritasuneko tasari jarraiki.

Egoera-balantzearen "Finantza-inbertsioak – Errenta finkoko tituluak" izeneko epigrafean erregistratu diren jaulkipen egituratuentzat ez da bermatu eragiketaren mugaeguneari inbertitutako kapital guztia berreskuratuko denik. Jaulkipen horiek akzioei eta bestelako partaideei begira deskribatu den irizpidearen arabera balioetsi dira. Ondorio horietarako, alderdi kontrarioak egindako balorazioaren bidez lortuko da merkatuko balioa.

Errenta finkoko finantza-inbertsioen eta jaulkipen egituratuen bitartez sortu diren eta kobratu gabe dauden interesak egoera-balantzearen aktiboaren "Aldizkapenagatiko doikuntzak" izeneko epigrafean erregistratuko dira.

g) Finantza-aktibo likidoak

Berriz saltzeko konpromisoarekin aldi baterako hartu diren finantza-aktiboak erosi ziren unean zuten prezioan balioetsiko dira; eta prezio hori diru-itzulketako balioa baino txikiagoa da.

Sortutako eta kobratu gabe dauden interesak, finantza-aldetik kalkulatzeko diren horiexek, egoera-balantzearen aktiboaren "Aldizkapenagatiko doikuntzak" izeneko epigrafean erregistratuko dira.

ITZARRI

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

h) Sarrerren eta gastuen onarpena.

Sarrerak eta gastuak sortzapen-aldiaren arabera onartuko dira kontabilitate-aldetik, eta ez, ordea, kobrantza edo ordainketaren arabera.

Errenta finkoko tituluen bidez sortu diren eta etekin esplizitua duten interesen aldizkapena egunero egingo da; kupoen kobrantza-egunera arteko aktiboaren Aldizkapenagatiko doikuntzak izeneko epigrafean erregistratuko dira, eta finantza-inbertsioen sarrera-kontuan ordainduko.

Interesen sortzapen-aldi bakoitzari aplikatu dakioken interes-mota zein den ezin jakin badaiteke likidazio-eguna iritsi arte, Erakundeak sortutako etekinen aldizkapena egingo du, kalkulua egiteko egunera arte erreferentziako indizeak izan duen bilakaera oinarritzat hartuta.

i) Prestazioetarako hornidura teknikoak

Hornidura hauek eratu dira Erakundeak, aurreikuspen-arloan egiten duen jardueraren ondorioz, bere gain hartu dituen betebeharreri aurre egiteko.

Hornidura hauek ekitaldi bakoitzean hornituko dira, eta zenbatekoa honelakoxea izango da: bazkide osoek ekitaldian jarritako kuoten eta bazkide babesleek ekitaldian egindako ekarpenen kopurua, eta, era berean, aurreko ekitaldiko emaitzen aplikazioa emaitzen banaketa hori onetsi ondoren. Hornidurak aplikatuko dira estatutuetan ezarritako prestazioei aurre egin ahal izateko. Hornidura horiek ekitaldian izan duten aldaketa galeren eta irabazien kontuan jasoko da; zehazki, zorren atalean, ekitaldi bukaeran dauden hornidura teknikoak jaso behar dira, eta, hartzekoen atalean, berriz, aurreko ekitaldiko hornidura teknikoak.

j) Bazkideen kuotak eta sortutako prestazioak

Honi erantsitako galeren eta irabazien kontuko "Ekitaldiko kuotak – Bazkideen kuotak" izeneko epigrafean, argi jasota daude Erakundeko bazkide osoek eta bazkide babesleek ekitaldi bakoitzean egin dituzten ekarpenak.

Bazkide osoen eskubideak "Hornidura teknikoak" izeneko kapituluko saldoaren arabera balioetsiko dira, beren ekarpenei eta prestazioei begira.

Ordaindutako zenbatekoak honi erantsitako galeren eta irabazien kontuko ekitaldian erregistratuko dira, Sortutako prestazioak izeneko kapituluan.

k) Sozietateen gaineko Zergaren konturako atxikipenak

Erakundeak lortu dituen higigarrien kapitalaren etekinei dagokien Sozietateen gaineko Zergaren kontura egindako atxikipenak, bestalde, honi erantsitako egoera-balantzearen aktiboko "Kredituak – Zerga-kredituak, kreditu sozialak eta bestelakoak" izeneko epigrafean aurkeztuko dira, Erakundeak horien itzulketa jasotzeko eskubidea baitu, Euskal Autonomia Erkidegoko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen zerga-erregimenari buruzko

ITZARRI

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

foru-arauen babesean.

l) Deribatuekiko eragiketak

Etorkizuneko finantzak kontratatzeko prezioaren eta ondoz ondoko merkatu-balioen artean izaten diren alde positiboak zein negatiboak galeren eta irabazien kontuan erregistratuko dira; hala, bada, finantza-eragiketen bidez izan diren galerak galeren atalean jasota geratuko dira, eta, finantza-eragiketen bidez izan diren irabaziak, berriz, irabazien atalean.

2005eko abenduaren 31n ez zegoen indarrean deribatuekin egindako eragiketarik.

m) Atzerriko moneta

Atzerriko monetan dauden saldo aktiboak eta pasiboak balantzean jasoko dira, balantzearen egunean dibisa-merkatua zegoen batez besteko kanbio-tasa ofizialean, edo, hala izan ezean, egun hori iritsi aurretik merkatuko azken egun baliodunean zegoen horretan. Finantza-inbertsioak dibisetan baloratzean sortutako diferentziak –horrelakorik sortu bada– zorroko gainbalio edo minusbalio ezkutuak direla joko da; bigarren hauek, bestalde, egoeraren balantzeko “Hornidurak” epigrafean erregistratuko dira. Diruzaintzatik datozen aldeak, positiboak nahiz negatiboak izan, ekitaldiko emaitzan ordainduko edo zordunduko dira, hurrenez hurren.

n) Jasotako diru-laguntzak

Erakundea abian jartzeko jarduerak finantzatzeko jaso eta erabili diren diru-laguntzak (11. Oharra) kontabilizatuko dira, baldin eta horien emakida ofiziala lortzen bada eta “Hainbat ekitalditan banatu beharreko sarrerak” izeneko epigrafean erregistratzen badira; ekitaldiaren emaitzara egotziko dira 3 urteko denboraldian, ustiatze-gastuek ondareari dagokionez duten garratzi erlatiboa aintzat hartuta –bi hauek hiru urte horietarako zenbatetsi ondoren–.

Erakundeak bere jarduera egiteko baliatzen dituen lokalen erabilera lagatzeari dagokionez (5. Oharra), diru-laguntza gisa erregistratu den zenbatekoa sarreretan jarriko da, aktibatutako erabilera-eskubideen amortizazioa gauzatzeko izan den proportzio berean.

o) Ingurumena

Erakundeak uste du ondo bete dituela ingurumena babesteko dauden legeak. 2005. urtean, Erakundeak 30 mila euroko inbertsioak egin zituen bere instalazioetako aire girotuko sistemak egokitu, eta arlo horretan indarrean dauden araudien arabera jartzeko. Bestetik, ez da beharrezkotzat jo ondorio horretarako hornidurarik egitea, Erakundearen jarduera kontuan izanik, urteko kontuetan eragina izan dezakeen arrisku edo gertakizun garrantzitsurik ez dagoelako

ITZARRI
BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

5. Ibilgetu ez-materialak

Hona hemen ibilgetu ez-materialak 2005. urtean izan duten mugimendua:

	Euroak, milakotan		
	Kostua	Amortizazioa	Kontabilitate-balio garbia
Aplikazio informatikoak:			
Gehikuntzak	196	(65)	131
Saldoa 2005eko abenduaren 31n	196	(65)	131
Erabiltzeko eskubideak:			
Gehikuntzak	476	(9)	467
Saldoa 2005eko abenduaren 31n	476	(9)	467
	672	(74)	598

“Erabiltzeko eskubideak” izeneko epigrafea Erakundearen egoitza soziala diren lokalei dagokie; lokal horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak doan laga ditu, Ogasun eta Herri Administrazio Sailburutzaren proposamenez Gobernu Kontseiluak 2005eko urtarrilaren 11n hartutako akordioaren bitartez. Erakundeak Administrazioaren esku utzi beharko ditu ondasun horiek Ogasun eta Herri Administrazio Sailak horrela eskatzen dionean, dela interes publikoa tartean dagoelako, dela Erakundeak bete ez dituelako bere gain hartu zituen konpromisoak, ondasunen xedeari eta ondasunak mantentzeko eta kontserbatzeko lanei dagokienez.

ITZARRI
BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

6. Ibilgetu materialak

Hona hemen ibilgetu materialetan sartutako kontuetan izan diren mugimenduak:

	<u>Euroak, milakotan</u>	
	<u>Gehikuntza</u>	<u>Saldoa</u>
	<u>k</u>	<u>2005eko</u>
		<u>abenduaren</u>
		<u>31n</u>
<u>Kostua</u>		
Garraioko elementuak	15	15
Altzariak eta instalazioak	94	94
Ekipo informatikoak	64	64
	<u>173</u>	<u>173</u>
<u>Amortizazioa</u>		
Garraioko elementuak	(3)	(3)
Altzariak eta instalazioak	(4)	(4)
Ekipo informatikoak	(21)	(21)
	<u>(28)</u>	<u>(28)</u>
<u>Kontabilitate-balio garbia</u>		<u>145</u>

7. Finantza-inbertsioak

Hona hemen finantza-inbertsioek 2005. urtean izan duten mugimendua:

	<u>Gehikuntzak</u>	<u>Erretiroak eta</u>	<u>Saldoa</u>
		<u>amortizazioak</u>	<u>2005eko</u>
			<u>abenduare</u>
			<u>n 31n</u>
Akzioak eta beste partaidetza batzuk	11.955	(4.736)	7.219
Errenta finkoko tituluak:			
- Jaulkipen egituratuak	9.897	(975)	8.922
- Errenta finkoko beste titulu batzuk	990	-	990
Hornidurak (kentzekoa):			
- Akzioak eta beste partaidetza batzuk	(105)	-	(105)
	<u>22.737</u>	<u>(5.711)</u>	<u>17.026</u>

ITZARRI

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2005eko abenduaren 31n, "Errenta finkoko tituluak" izeneko kapituluaren sartutako jaulkipen egituratuak erakusten zuten errentagarritasuna lotuta zegoen interes-tasen gaineko eta balioen gaineko indize jakin batzuei; horiei dagokienez, erosteko unean 500 mila euroko kostua duen inbertsio bati ez zaio bermatzen inbertitutako kapitala berreskuratuko denik.

2005eko abenduaren 31n, "Finantza-inbertsioak" izeneko epigrafean, dibisan hartutako tituluak zeuden, eurotan dagokien kontrabaliorekin; hona hemen zein den:

	<u>Euroak, milakotan</u>
Dolar amerikarrak	405
	<u>405</u>

2005eko abenduaren 31rako aurreikusita zegoen errenta finkoko zorroaren mugaeguna honelakoxea da:

	<u>Euroak, milakotan (balioa liberatan)</u>
2006	500
2012 eta ondorengoak	8.422
Betiereko jaulkipenak	990
	<u>9.912</u>

"Errenta finkoko tituluak – Jaulkipen egituratuak" izeneko kapituluaren barruan, balio jakin batzuek 9.412 mila euroko kostua izan zuten erosi ziren unean; jaulkitzaileak balio horiek kitatzeko aukera du kontratuaren mugaeguna iritsi aurretik, edo, bestela, horien azken mugaeguna aurreratu dezake eta kontratua burutu aurretik egin, jaulkipenen errentagarritasunaren bilakaera kontuan izanik.

2005eko abenduaren 31n, Erakundeak gordetako errenta finkoko balioek sortu zuten urteko interes-tasa nominala %6 eta %8 bitartean zegoen.

2005eko abenduaren 31n, sortutako eta kobratu gabeko etekinak, finantza-inbertsioei dagozkien horiek, 97 mila euroko zenbatekoan erregistratu ziren, "Aldizkapenagatiko doikuntza" izeneko epigrafean, honi atxikitako egoera-balantzearen aktiboan.

2005eko abenduaren 31n, Erakundearen jabetza-tituluen gordailua Bilbao Bizkaia Kutxan eginda zegoen.

2005eko abenduaren 31n gainbalio ezkutuak zeuden, akzioei eta bestelako partaidetzei zegozkienak, 279 mila eurokoak. Egun horretan, zorro horretan sartutako balio guztiak onartuta zeuden antolatutako merkatuetan kotizatzeke.

ITZARRI BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

8. Eskudirua

2005eko abenduaren 31n, "Bankuak eta kreditu-instituzioak" izeneko epigrafea honako honi dagokio: euriborraren %90eko erreferentziako interes-tasan ordainduta dauden finantza-erakundeen kontu korranteetan Erakundeak duen saldoari.

2005eko abenduaren 31n, "Finantza-aktibo likidoak" izeneko epigrafea honako honi dagokio: 2006ko urtarrilean mugaeguna duten moneta-aktiboaren aldizkako erosketen kostuari, betiere, sortzen duten urteko interes-tasa %2,12koa bada.

2005eko abenduaren 31n, sortu diren eta kobratu gabe dauden interesak, egoera-balantzako epigrafe hau osatzen duten kontzeptuei dagozkien horietatik, aktiboko "Aldizkapenagatiko doikuntza" izeneko epigrafean erregistratu dira, eta haien zenbateko metatua 2 mila eurokoa da.

9. Ondare soziala

Hona hemen 2005eko ekitaldian izandako mugimendua eta xehetasuna:

	Euroak, milakotan		
	Mutua-fondoa	Ekitaldiko soberakina	Guztizkoa
Ekarpenak	30	-	30
2005eko ekitaldiko soberakina	-	584	584
	30	584	614

"Mutua-fondoa" epigrafeko saldoa Eusko Jaurlaritzak, bazkide sustatzailea denez eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen araudiak finkatutako gutxienezko kopurua betetze aldera, Erakundea eratzeko jarri duen zenbatekoari dagokio.

10. Hornidura teknikoak

Hau da epigrafe honen saldoan 2005eko ekitaldian izandako mugimendua:

	Euroak, milakotan
Bazkide babesleen ekarpenak	29.153
Bazkide osoen ekarpenak	428
Bestelako BGAEek egindako esku-aldatzeak	10
Ekitaldian ordaindutako prestazioak	(109)
Saldoa 2005eko abenduaren 31n	29.482

ITZARRI

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2005eko abenduaren 31n, bazkideen eskubide bateratuak honako hauek ziren: prestazioetarako hornidura teknikoaren saldoa eta ekitaldiko emaitza garbia.

2005eko abenduaren 31n, hauek ziren Erakundearen ondareko daturik garrantzitsuenak:

	2005
Partaidetza-kopurua	2.936.026,53
Partaidetzaren balio bateratua (eurotan)	10,24
Ekitaldiko urteroko errentagarritasuna (*)	3,4112%
Bazkide osoen kopurua	70.207

(*) Ekitaldiko errentagarritasuna kalkulatzeko, 2005eko apirilaren 18ko likidazio-balioa hartu da oinarritzat, egun horrextan kalkulatu baita lehenbiziko aldiz likidazio-balio hori.

11. Hainbat ekitalditan banatu beharreko sarrerak

Hona hemen epigrafe honetan 2005eko ekitaldian izandako mugimenduak:

	<u>Euroak, milakotan</u>
Gehikuntzak:	
- Lokalak doan lagatzea (5. oharra).	476
- Abian jartzeko diru-laguntzak	850
Emaitzetara egozteak	(513)
Saldoa 2005eko abenduaren 31n	813

2005eko abenduaren 31n abian jartzeko eta hainbat ekitalditan banatzeko sarrera gisa erregistratu den zenbatekoa Euskal Administrazio Publikoak emandako diru-laguntza bati dagokio; izan ere, Euskal Administrazio Publikoak, bazkide sustatzailea eta babeslea denez, diru-laguntza eman zuen 2004ko azaroaren 30ean, Erakundea abian jartzeko egin beharreko jarduerak finantzatze-aldera eta, era berean, erakundearen ohiko funtzionamendua errazte aldera.

12. Zerga-egoera

Indarrean dagoen legeriari jarraiki, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek zero karga-tasa bete behar dute Sozietateen gaineko Zergan; horrela, bada, eskubidea dute atzera itzul diezazkieten finantza-aktiboetako etekin implizituen gainean egiten zaizkien atxikipenak, aktibo horiek duten atxikipen bakarra jatorrizkoa bada. Alabaina, nahitaez bete behar dira Sozietateen gaineko Zergak erregimen orokorraren mende dauden subjektu pasiboiei eskatu ahal dizkien betebeharrak formalak.

ITZARRI

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Indarrean dagoen legeriak ezarri duenez, ezin da zergak erabat likidatuta daudela jo, harik eta zerga-arloko agintariek aurkeztu diren deklarazioak ikertu arte, edo lau urteko preskripzio-aldia igaro arte. 2005eko abenduaren 31n, Erakundeak zabalik ditu, zerga-arloko agintariek ikertu ditzaten, eratu zen unetik aplikatu ahal zaizkion zerga nagusi guztiak. Ikerkuntza eginez gero, Erakundeko administratzaileek ez dute uste garrantzizko subjektu pasiborik sortuko denik.

13. Bestelako informazioa

Erakundeak ez du zenbatekorik ordaindu ordainsarien kontzeptuan, eta, era berean, ez zaio aurrerakinik ez krediturik eman, eta ez du betebeharririk hartu bizitza-aseguruen arloan Gobernu Batzarreko kide zaharrekiko edo oraingo kideekin.

2005eko ekitaldian, kanpoko auditoretzako zerbitzuetarako Erakundeak izan zituen ordainsariak 14 mila euro izan ziren. Ekitaldi horretan, ez zen zenbateko gehigarririk fakturatu, auditoretza-sozietateak edo hari lotutako enpresek egindako bestelako zerbitzuetan adierazitakoaz gain.

14. Finantziazio-koadroa

Hauxe da 2005eko finantziazio-koadroa (euroak, milakotan):

<u>APLIKAZIOAK</u>	<u>2005</u>	<u>JATORRIAK</u>	<u>2005</u>
Ondarea dela-eta:		Eragiketetatik ateratako baliabideak direla-eta:	
- Prestazioak eta erreskateak	109	- Ekitaldiko soberakina	584
	<u>109</u>	- Gehiago (gutxiago) – Horniduren aldaketa; finantza-inbertsioen balio-galerak sortutako hornidurak	105
Ibilgetua erosteko:		- Gehiago (gutxiago) – Finantza-inbertsioak besterentzean lortutako emaitza garbia	(429)
- Eraketa-gastuak	9	- (Gehiago) – Amortizazioetarako zuzkidurak	103
- Ibilgetu ez-materiala	196		
- Ibilgetu materiala	173	- (Gutxiago) – Emaitzetara lekualdatutako diru-laguntzak	(513)
	<u>378</u>		<u>(150)</u>
Honako hauen gehikuntza edo gutxipen garbia dela-eta:		Ondarea dela-eta:	
- Finantza-inbertsioak	16.702	- Mutua-fondoaren ekarpena	30
- Eskudirua	13.095	- Bazkideen kuotak	29.581
- Kredituak	477	- Bestelako BGAEek egindako esku-aldatzeak	10
- Aldizkapenagatiko doikuntzak	129		<u>29.621</u>
	<u>30.403</u>		
		Jasotako diru-laguntzak	850
		Gehikuntza edo gutxipen garbia dela-eta:	
		- Zorrak	569
			<u>569</u>
APLIKAZIOAK, GUZTIRA	<u>30.890</u>	JATORRIAK, GUZTIRA	<u>30.890</u>

ITZARRI BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2005EKO EKITALDIKO KUDEATZE-TXOSTENA

ERAKUNDEAREN BILAKERA ETA EGOERA

ITZARRI Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea 2004ko uztailaren 4an eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak hartutako akordioaren bidez. Akordio horrek, bestalde, bete egin zuen gizarte-aurreikuspen osagarriaren esparruan maiatzaren 6ko Mahai Orokorrean, 2003. eta 2004. urteetarako ordainsarien gehikuntzei buruz, hartu zen konpromisoa.

Gobernu-akordio horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Instituzionala osatzen duten erakundeak ITZARRI-BGAEren bazkide babesle gisa eratu ziren, eta, horrez gain, hitz eman zuten beren soldata-masaren ehuneko bat –urtero ezarritako kopuru horixe– jarriko zutela erakundeari egindako ekarpenak finantzatze aldera. 2004ko ekitaldian %0,5eko ekarpena finkatu zen, eta 2005eko ekitaldian, berriz, %0,5 gehigarria.

2005eko abenduaren 31n zeuden ekarpenak 29.590.814 eurokoak ziren guztira, horrietatik 10.165.613 euro 2004ekoak direlarik. Hala, beraz, 2005ean %191,09ko igoera egon da 2004ko ekitaldiari dagokionez.

Jasotako ekarpenetatik, 109.215,64 euro prestazio hauek ordaintzeko erabili dira: erretiroa dela-eta, 86.336,79 euro; ezintasuna dela-eta, 13.080,69 euro; eta, heriotza dela-eta, 9.798,16 euro.

Bazkide osoak, 2005eko abenduaren 31n, 70.207 izan ziren, eta, horietatik, 3.534 etenduran zeuden bazkideak ziren.

Bazkideen eskubide bateratuen balioa, 2005eko abenduaren 31ko ekitaldiaren soberakina barne hartuta, 30.065.452 eurokoa zen, eta urte horretan 583.853,72 euroko mozkin garbia lortu zen. Ondarea 2.936.026,527904 kontu-unitate ziren, eta horien likidazio-balioa 10,240184 eurokoa zen.

Finantza-merkatuei dagokienez, 2005. urtean, ekitaldia onuragarria izan da errenta aldakorrari begira, eta hala-moduzkoa, berriz, errenta finkoari dagokionez. Errenta aldakorreko nazioarteko merkatu nagusiek aurrerapenak izanik itxi dira ostera ere, elkarren segidako hirugarren urtez. Lagungarria izan da horretarako enpresa-arloan izan diren emaitza onak, ekonomiak izan duen hazkunde orokorra eta indartsua, nahiko kontrolatuta egon den inflazioa eta bonuen errentagarritasun baxuak. Nabarmendu behar da Nikkei indizeak izandako igoera, %40,24koa izan baita, eta, era berean, garatzeko bidean dauden Hego Amerikako eta Europako ekialdeko zenbait herrik izan dituztenak. Europako mendebaldean, Eurostoxx 50 indizeak %21,27 egin zuen gora, eta Alemaniako burtsa izan zen balio gehien hartu zuena (+%27,07). Ibex-35 indizeak %18,20 egin zuen gora, baina hazkunde hori nolabait oztopatua geratu zen Telefónicak (bere pisu astunetako batek) azkenean erakutsi zuen jokabidea dela-eta. Bestetik, Ipar Amerikako S&P 500 indizea %3 igo zen.

ITZARRI BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Sektoreen arabera, Europan jokaera hobea izan zuten sektoreak petrolio bezalako lehengaei estuen lotuta daudenak eta oinarritzko materialen sektorea izan ziren; jokabiderik okerrera, berriz, telekomunikazioen sektoreak izan zuten, lehiakortasunaren presioa handiagoa izan zelako.

Errenta finkoko merkatuek, ordea, jokabide desberdina izan zuten Atlantikoaren batean zein bestean. Hala, bada, bonu amerikarrek igo egin ziren errentagarritasunetan (beraz, prezioak behera egin zuten), epe laburreko tasek era nabarmenean egin zutelako gora, beren ekonomiak hazkunde sendoa izan zuelako eta, orobat, inflazioko presio gehiago egon zelako. Ildo horretan, 10 urteko bonuaren errentagarritasuna %4,22tik %4,39ra igo zen. Aldiz, Europan ez zen hazkunde ekonomiko sendorik egon urte horretan, eta, horrenbestez, bonuen errentagarritasunak behera egin zuen. Alemaniako Bund-ak, Europako 10 urteko errentagarritasunaren erreferentzia denak, %3,71tik %3,31ra jaitsi zen, %3ko gutxieneko balio historikora iritsi ondoren.

Dibisa-merkatuari dagokionez, dolarraren kotizazioaren balioa handitzen joan da, urtearen bukaeran 1,18 \$/€ mailara iritsi baita, 2004. urtean lortu zen 1,366 \$/€ mailatik urrun, beraz. Mugimendu horren arrazoia izan da fondoek dolarretan izendatutako aktiboetara izan duten fluxuari eutsi zaiola, eta hala gertatu da Asiako ekonomien kontu-korronteko superabitak direla-eta eta Estatu Batuetan dabilen interes-tasa handiagoa dela-eta.

Horiek horrela, ITZARRI-BGAEk bere zorroa dibertsifikatu du, eta horretarako aintzat hartu ditu ekarpen berriak, errenta finkoaren errentagarritasun-mailak eta burtsako merkatuen bilakaera. Alde batetik, errenta aldakorreko inbertsioa gora joan da poliki, banaketa geografikoa dibertsifikatu baita; eta, bestetik, bonuek denik eta etekinik txikiena baitzuten, errenta finkoko inbertsioa egituretara bideratu da, eta, beraz, arrisku handiagoa hartu da.

2005. urtean ITZARRI-BGAE sortu, eta abian jarri da; eta, hargatik, egin diren inbertsioek Gobernu Batzarrak ezarritako irizpideak bete dituzte, bai eta hasten ari den finantza-erakunde bati aplikatu dakizkiokeen segurtasuneko eta zuhurtasuneko printzipioak ere.

Lehenbiziko inbertsioak 2005eko maiatzaren 10etik aurrera egin ziren, Gobernu Batzarrak otsailaren 25ean egin zuen aurreneko bileraren ondoren eta likidazio-balioa apirilaren 18an zehaztu eta gero; hori dela-eta, inbertsioa 8 hilabeteko denboraldian metatu da; gai hori aintzat hartu behar da egin diren inbertsioen errentagarritasuna eta likidazio-balio garbiaren etekina aztertzeko eta balioesteko garaian.

Errenta aldakorreko inbertsioaren banaketari dagokionez, %11,35 Espainiako burtsan inbertitu da, %7,57 Europako burtsan, eta %1,34, azkenik, Estatu Batuetako burtsan; ehuneko horiek inbertsio-zorroari dagokionez zehaztu dira. ITZARRI-BGAEk zuzenean kudeatu du inbertsio osoa. Errenta aldakorreko inbertsio-fondoetan izandako partaidetza guztizko inbertsioaren %3,62 da; eta nazioarteko merkatuetan gauzatu da, hala nola, Japonian eta Estatu Batuetan.

ITZARRI BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2005eko abenduaren 31n finantza-inbertsioak 17.026 mila eurokoak ziren; horietatik, 7.219 mila euro akziokoei eta bestelako partaidetzei dagozkie; 9.912 mila euro errenta finkoko titulukoak dira (egiturak), eta 105 mila euro, azkenik, hornidurakoak. Inbertsio-zorroa balioesteko erabili den irizpidea errenta finkoko aktiboak izan dira, erosteko unean zuten prezioan; errenta aldakorrari eta dibisetako kokapenei dagokienez, hornidura egingo da, burtsan duten kanbioa edo dibisa-merkatuan duten kotizazioa baxuagoa bada erosteko uneko prezioa baino. Inbertsio-fondoetako partaidetzak balioesteko erabiltzen irizpidea errenta aldakorra balioesteko erabiltzen den horixe bera da, baina likidazio-balioa hartzen da merkatu-balio gisa.

Erakundeak jardunean eman duen lehenbiziko urte honetako egiturako eta kudeaketako gastuak 569 mila euro izan dira; eta bazkide osoek beren gain hartu duten gastuen ehunekoa ondarearen %1,89 izan da 2005eko abenduaren 31n bateratutako eskubideen gainean. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza aplikatu ondoren, gastu horiek gutxitu egin dira, 55.769 euro izan baitira; hortaz, bada, gastuen ratioa ondarearen %0,18 izan da.

2005EKO EKITALDIO ALDERDIRIK NABARMENENAK

Ekitaldiko alderdirik nabarmenena izan da IZARRI-BGAE jardunean hasi dela eta lehenbiziko urratsak egin dituela etorkizuneko proiektua finkatze aldera, batez ere, eta garrantzitsuago dena, bazkide osoen konfiantza lortzeko modu profesionalean lan eginez, hartara osagarri bat bermatu ahal izateko bazkide horiei, erretiroa hartutakoan izango duten pentsioan, eta hori dena ilusioz beterik.

Horrez gain, nabarmendu behar da IZARRI-BGAE errealitateari atxikirik dagoela, Lan Harremanen Kontseiluari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagokionez.

2006. URTERAKO DAUDEN AURREIKUSPENAK ETA BILAKAERA

2006. urtean, bazkide babesle berriak sartuko dira, hala nola, Datuak Babesteko Euskal Agentzia; eta, beraz, parte-hartzaile gehiago izango dugu. Horrez gain, aurrera egingo da ondarearen hazkunde esponentzialarekin, bazkide babesleek jarritako ekarpenaren ehunekoa sendotuko eta finkatuko delako; 2006. urtean ehuneko hori %0,5 gehituko da aurreko ekitaldian indarrean zegoen kopuruari dagokionez.

Erakundearen inbertsio-zorroaren egiturari dagokionez, aldatuz joango da ekitaldian, finantza-merkatuen bilakaeraren arabera; hala, bada, inbertsioaren kudeaketa eraginkorra eta malgua izaten jarraituko da, eta egokitu da merkatuen joan-etorriaren arabera.

Urtean zehar, Erakundeak ahalegina egingo du errenta aldakorrean eta errenta finkoan duen kokapena igotzeko, likideziaren kalterako; likidezia oso garrantzitsua izan da 2005. urtean, lehen esan dugunez, ekitaldi horixe izan baita erakundearen jardueraren lehenbiziko urtea.

ITZARRI

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA 2005EKO EKITALDIKO KUDEATZE-TXOSTENA ETA URTEKO KONTUEN FORMULAZIOA

2006ko martxoaren 9an, Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Gobernu Batzarreko kideek 2005eko abenduaren 31n burututako ekitaldiari dagozkion urteko kontuak (hau da, egoeraren balantzea, galeren eta irabazien kontua, eta memoria) eta kudeatze-txostena formulatu dituzte. Kide guztiek orri hau sinatu dute, bat datozela adierazteko; eta Gobernu Batzarreko idazkariak lehen adierazitako dokumentuen orri guztietan sinatu du, behar bezala identifikatze aldera.

SINATZAILEAK

SINADURA

Idoia Zenarrutzabeitia Beldarrain andrea
(Batzarburua)

José María Endemaño Arostegui jauna

Gloria Quesada Menendez andrea

Javier Garayalde Vélaz jauna

Abel López de Aguilera Quintana jauna

Igone Martínez de Luna Unanue andrea

Mikel Ortega Abad jauna

Pablo Ruiz de Gordejuela Urquijo jauna

Luis Manuel Aguirre Elustondo jauna

Andoni Sanz Sierra jauna

Aizpea Betelu Bazo andrea

Lander Etxebarria jauna

Ohian Ostolaza jauna

Mariano García jauna

José Antonio de Leniz Aspiazu jauna

Eduardo García Elosua jauna
(Idazkaria)
